

# *Tolosako jasangarritasunari buruzko txostena*



## *2011*



# *Aurkibidea*

- *Sarrera*
- *Adierazleak*
  - *Ingurumen hezkuntza*
  - *Hiri – plangintza*
  - *Natura eta Biodibertsitatea*
  - *Ekonomi jarduerak*
  - *Energia*
  - *Emisioak*
  - *Gizartea*
  - *Kutsadura atmosferikoa*
  - *Mugikortasuna*
  - *URA*
  - *Hondakinak*

# *Sarrera*

*Txosten honek Tolosako garapen integralerako tresna bat izan nahi du. Jasangarritasunaren ikuspegitik Tolosarrok nolako norabidea egiten ari garen azaltzen lagunduko duena.*

*Tolosa aspalditik dabil jasangarritasuna lantzen eta Agenda 21 bezalako tresnak barneratuta ditu eguneroko kudeaketan. Udalsarearen parte izanik beste udalerrri askorekin batera jasangarritasunaren adierazleak kalkulatu eta ebaluatzen ditu urtero.*

*Txosten honetan horietako batzuk azaltzen dira, gure ustez lantzen diren gaien adierazgarriak izan daitezkeenak.. Datorren urteetan txosten honi adierazle gehiago gehituko zaizkio Tolosako jasangarritasunari buruzko irudi osatuago bat lortu ahal izateko.*

*Udaleko Ingurumen eta Agenda 21eko  
Departamentua*

## Ingurumen hezkuntza

Adierazlea:

INGURUMEN-HEZKUNTZA

Udalerrian ingurumen-  
hezkuntzari buruz egindako  
jarduera-kopurua.




Nahi den joera:

GEHITZEA

Eboluzioa:

Azken 3 urtetan gutxitu egin  
dira aurrekontu eta diru  
laguntzen murrizketengatik.



- Urari buruzko unitate didaktikoa egin da
- Sentsibilizazio kanpainak: zuhaitz eguna, aste berdea, mugikortasun astea eta Gabonak eta kontsumoa.
- Eskola agenda 21: Biodibertsitatea
- Ekintza guzti hauek Tolosako Ingurumen Zentroarekin batera aurrera eramán dira.

## Hiri - plangintza

Adierazlea:

LURZORU

ARTIFIZIALIZATUA

Lurzoru artifizializatuaren ehunekoa udalerriaren azalera osoarekin alderatuta. Naturala ez den lurzorua da, hau da, obrarik izan ez duen lurra.

Lurzoru artifizializatuaren ehunekoa udalerriaren azalera osoarekin alderatuta.




Nahi den joera:

MANTENTZEA

Eboluzioa:

Mantendu egin da.



Egin diren urbanizazio berriak lurzoru artifizializatuaren gainean egin dira eta ez da erabili lur zoru naturalarik. Adibidez: Voith-Gorostidi eta Agaramundu plaza. Etxebizitza berriak egin dira lehen erabilera industrial zuten lurretan.

## Natura eta Biodibertsitatea

Adierazlea:

UDALERRIKO AZALERA  
OSOKO AZALERA BABESTUA

Azalera babestuaren ehunekoa  
udalerriko lurzorua azalera  
osoarekiko




Nahi den joera:

GEHITZEA

Eboluzioa:

Mantendu egin da.



% 19

Tolosako Udallerri barruan babestutako leku hauek daude:

Aralarko parke naturalaren zati bat (Bedaio),

Natura 2000 sareko 3 gune: Ernio-Gatzume, Oria eta Araxes

Naturarekiko interes dun gunea: Ernio-Gatzume, Araxes, Jazkugane eta Basabe

Natura 2000 sareko 3 guneek bere tramitazioa jarraitzen dute. 2011 urtean parte hartze prozesua egin zen Eusko Jaurlaritzaren eskutik gune hauen erabilerak finkatzeko.

# Ekonomi jarduerak

Adierazlea:

ENPRESEN SORRERA-  
ESTABLEZIMENDU SALDO  
NETOA

Establezimenduen kitapen  
garbia (altak-bajak) udalerrian,  
1000 biztanleekiko




Nahi den joera:

GEHITZEA

Eboluzioa:

Eboluzioa beherakoa da, gaur  
egun daukagun krisiaren  
eraginez



Tolosako Udala merkataritzarekin batera lan mahaia dauka osatuta proiektuak aurrera eramateko. Mahai honetako partaideak hauek dira: Tolosako Udala, Tolosaldea Garatzen, Tolosa&Co, Gipuzkoako Ganbara eta Gipuzkoako Federazio Merkantila.

# Energia

Adierazlea:

ETXEKO GAS NATURAL ETA  
ELEKTRIZITATE-  
KONTSUMOA

Energi kontsumoa petrolio  
tonatan adierazita, biztanleko  
eta eguneko.




Nahi den joera:

GUTXITZEA

Eboluzioa:

Balorea mantentzen bada ere,  
badirudi gutxitzeko joera  
duela, nahiz eta krisiak ere  
hemen eragina izan dezakeen.



Tolosako Udalak energia kontsumoa gutxitzeko tinko ari da lanean.

Bataz beste ekintza hauek martxan jarri ditu:

Argiteri publikoan kontsumo eraginkorreko argiak ezarri.

Usabal kiroldegiko eremua argiteri inteligentea jarri eta kiroldegian kogenerazioa jarri da.

2010 urtean Alkatearen Itunarekin bat egin zuen eta Tolosako energiaren ekintza plana idazten ari da, honekin 2020 urterako %20 gutxitu beharko du energia kontsumoan, %20 ekoiztu energi berriztagarrien bitartez eta %20 gutxitu beharko dira Co2ko isurpenak.



## Emisioak

Adierazlea:


BEROTEGI-EFEKTUA  
ERAGITEN DUTEN GASEN  
EMISIOAK UDALERRIAN



Nahi den joera:

GUTXITZEA

Eboluzioa:



Tolosako Udalak urtero herriko eta udaren negutegi efektuko gasen inbentarioa kalkulatu du. 2011 urtean Alkatearen Itunarekin bat egin zuen eta Tolosako energiaren ekintza plana idazten ari da, honekin **2020 urterako %20 gutxitu beharko du energia kontsumoan, %20 ekoiztu energi berriztagarrien bitartez eta %20 gutxitu beharko dira Co2ko isurpenak.**

## Gizartea

Adierazlea: POBREZIA ETA  
BAZTERTZE SOZIALA


Oinarrizko Errenta prestazioa  
jasotzen duten udalerriko  
familien ehunekoa



Nahi den joera:  
GUTXITZEA

Eboluzioa:

Krisia dela eta gero eta famili  
gehiago daude egoera  
larriagoan.



## Kutsadura atmosferikoa

Adierazlea:

HIRIKO AIREAREN  
KALITATEA

Airearen kalitate ona edo  
onargarria duten egun-kopurua.




Nahi den joera:

GEHITZEA

Eboluzioa:

Airearen kalitatea hobetzen  
joan da azken urtetan



Hiri gunean zeuden enpresak lekuz aldatzea onuragarria izan da herriko airearen kalitatea hobetzeko. Voith-Gorostidi eremuan zeuden enpresek Apatta poligonora joan zirenean (2007-2008) airearen kalitateak hobekuntza nabarmena izan zuen.

## *Mugikortasuna*

Adierazlea:

IBILGAILUAK:  
AUTOMOBILAK


Ibilgailu- kopurua (DGT)



Nahi den joera:  
GUTXITZEA

Eboluzioa:

Kotxe kopurua azken urtetan  
igotzen joan da, dena den,  
azken 3 urtetan mantendu  
egin da.



Udalak urte asko darama bizikleta eta oinezkoen leku gehiago ematen.

Adierazgarria da oinezkoen mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko jarri diren igogailuak Zuloaga Auzoan eta Bidebietan. Era berean adierazi oinezkoen mugikortasuna hobetzeko Gernikako Arbola berurbanizatu egin dela.

## URA

Adierazlea:

ETXEKO UR-KONTSUMOA

Ur kontsumoa biztanle eta eguneko (litro)




Nahi den joera:

GUTXITZEA

Eboluzioa:

Azken urtetan pixkanaka bada ere etxetako ur kontsumoa gutxitzen doa



Kolektorea, ur araztegia, Ibiur eta beste hainbat obra egin dira azken urtetan gure herriko ur kalitatea hobetzeko.

Landa auzoetako uraren hornidura eta kalitatea hobetzeko ere hainbat inbertsio egin dira, besteak beste, Bedaio auzoan ur deposito berria egin da.

## Hondakinak

Adierazlea:

HIRI HONDAKINEN  
SORRERA


Hiri hondakinen sorrera  
biztanleko eta eguneko (kilo)



Nahi den joera:  
GUTXITZEA

Eboluzioa:

Gero eta hondakin gehiago  
sortzen dugu.



Tolosaldea Mankomunitateak hainbat kanpaina egin ditu.